


# Mundukerien kontra, 'Munduketariak'



**MUNDUKETARIAK.** Aitziber Arrugaeta (Ordiziako Urdaneta eskola), Jokin Mitxelena marrazkilaria, Patxi Zubizarreta idazlea eta Lurdes Imaz (Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkartea). GORKA RUBIO / FOKU

'Munduketariak' (Erein) gazteentzako liburuak Patxi Zubizarreta idazlea eta Jokin Mitxelena marrazkilaria ditu egile, eta Euskal Eskola Publikoaren Jaia du sustatzaile.

## Garbine Ubeda

DONOSTIA— Ordiziako (Gipuzkoa) Urdaneta eskola publikoak ipuin bat plazaratuz ospatu nahi izan du bere sorreraren 50. urteurrena, eta zer aproposagorik sortzez ordiziarra den bati, Patxi Zubizarretari, idazketa lanak eskatzea baino. Hark Jokin Mitxelena marrazkilariarekin hitz egin zuen, eta elkarrekin Erein argitaletxera jo zuten. Itxuraz gazteentzako beste edozein liburu bezalako dirudien arren, prozesu konplexu baten emaitza da *Munduketariak*; idazlearen, marrazkilaria eta editorearen lana ez ezik, gurasoen eta irakasleen ekarpena ere kontuan hartu baitu.

Lurdes Imaz EHIGE Euskal Herriko ikasleen gurasoen elkarteko koordinatzaileak Euskal Eskola Publikoaren Jaia testuinguruan kokatu du ipuina —Ordizian

ospatuko da, Urdanetaren omenez, ekainaren 2an—, eta berekin dakartzan baloreak goraiatu ditu, hala nola «kultur aniztasuna, emigrazioa, nortasuna eta munduaren ezagutza, betiere Euskal Herrian oinarrituta».

## Babelgo dorrea Ordizian

Zubizarretak bere sorterrian aurkitu duen errealitatea izan du inspirazio iturri: «Ederra izan da deskubritzea badirela 30 jatorri baino gehiago Ordizian, eta hogeitik gora hizkuntza egiten direla». Haren ustez, eskolak «Babelgo dorrearen alderdirik baikorrena» aldarrikatu beharko luke, eta aberastasun hori bideratu: «Hain zuzen, horregatik asmatu nuen gelazkina». Gelako haurrak munduko lurraldeetan berrera eramango dituen tramankulua da gelazkina, eta, aldiko, haur talde bereko protagonista bat du gidari. Korapiloric ere bada, neskatila bat —Harmony du izena— ezeroso aurkituko baitu Kattalin irakasleak, Nigeriara bidaiatu nahi ez duelako.

«Halaxe sortu zen ipuin hau, itzulpenaren izpiritua aldarrikatzen duelako, harresiaren izpirituaren kontra», esan du Zubizarretak. Javier Cercas idazlearen hitzak ere baliatu ditu *Munduketariak* ipuinaren nondik norakoak definitzeko; bereziki, hilean behin

mundua konpontzeko gelditzen ziren lagunen istorioa izan du go-goan: «Jakina, ez zuten mundua konpondu, baina ondorio batera iritsi ziren. Hots, hiru pertsona direla beharrezko: batetik, medikua, aurrera egiteko; bestetik, irakaslea, mundua deskubritzeko; eta, hirugarrenik, ezezkua esaten dakiena, injustizia egoerari aurre egingo diolako». Ezezko horretatik abiatu eta mundu berri bat sortzeko ahaleginari egiten dio keinu, hain justu, liburuaren izenburuak. Gaizki-ulerturik sortu du, baina: «Webguneren batean 'Mundukerriak' ipini dute 'Munduketariak' ipini beharrean, eta beharbada horixe bera da liburu honen funtsa, mundukerien kontra munduketariak sortzea, mosketariak bezala», esan du Zubizarretak. Alde horretatik, aldarrikapen helbururik ere badu liburuak.

## Errealitatearen ispilu

Aitziber Arrugaeta Ordiziako Urdaneta eskolako irakasle eta gurasoaren arabera, ipuinak herriaren errealitatea islatzen du: «Jatorri askotariko familiak ditugu, hizkuntza asko, eta egoera sozioekonomiko, hezkuntza behar eta euskalduntzeko premia ezberdinak». Horri guztiari publikotasunean oinarrituta erantzun behar diotela esan du,

«guztiei lekua eginez, bakoitza bere nortasun, sinesmen eta pentsaerarekin onartuz»; eta hori bera egitera datoz ipuineko protagonistak ere, hots, Kattalin irakaslea, eta Mikaela, Harmony, Hodei, Alejandra eta Haizea ikasleak.

Haatik, aldarrikapenez harago doa ipuin horren balioa, Inazio Mujika Iraola editoreak azaldu duenez: «Oso liburu polita da, baina ez soilik pasatzen dituen balioengatik, baita kontatzeko moduagatik ere, hori ere garrantzitsua baita». Jokin Mitxelena marrazkilaria estereotipoen egin behar izan die aurre: «Batzuetan oso praktikoa dira, ez baituzu esplikazio handirik eman beharrik, eta lana laburtzen baitute, baina abusatu ere ez da egin behar». Liburuan garrantzi handia du Afrikak, eta Mitxelenak Ghanako lagun baten aholkuari jarraitu dio, liburuaren ilustratzerakoan: «Gauza oso koloretsuak, oso ozenak eta oso handiak gustatzen omen zaizkie Afrikan; oso ozenak ezin dira marraztu eta oso handiak ere ez, liburuaren txikia izaki, baina kolore behintzat badute». Bestalde, liburuan jende askok parte hartu duela eta «ekintza artistikoa denak ados jartzea» izan dela azpimarratu du.

*Munduketariak* ipuinari protagonismo berezia emango zaio Euskal Eskola Publikoaren Jaian, ekainaren 2an. Ordurako unitate didaktiko bat ere jarriko dute EHIGEn webgunean, ipuinean azaltzen diren gaiak eskolan landu nahi dituztenentzat. ●

## SAN TELMO MUSEOA

Asteartetik igandera: 10:00-19:00  
www.santelmomuseoa.eus

Gaur, museorako sarrera doakoa da.



## Hitzaldia

El oficio del chocolate

Rafa Gorrotxategi

19:00 | Gaztelania

Sarrera librea jarlekuak bete arte

**STM**

San Telmo Museoa



«Halaxe sortu zen ipuin hau, itzulpenaren izpiritua aldarrikatzen duelako, harresiaren izpirituaren kontra»

**PATXI ZUBIZARRETA**

Idazlea